

# NEURRIZKO LAGUNTZA DUTEN ETXEBIZITZAK

Garrantzitsua

**Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.**

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

**Pertsona 18+ buru gaixotasuna > Egoitza edo etxebizitza bat laguntzarekin eskuratzea**

Fitxa laburtua kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio osoa.](#)

## Norentzat

18 urte edo gehiagoko pertsonak, **buruko gaixotasun kronikoa** dutenak.

## Kostua

**Koordainketa duen zerbitzua**, egoera ekonomikoaren eta erabilera-modalitatearen arabera.

## Baldintzak

**18 urte edo gehiago** (salbuespenak izan ezik).

**Buruko gaixotasun kronikoaren** diagnostikoa.

## Zertan datza?

Etengabeko gainbegiratzerik behar ez duten eta, egunez, zerbitzutik kanpo eskaintzen diren prestakuntza- eta garapen pertsonalerako-jardueretan parte hartzen duten buruko gaixotasunak dituzten pertsonak artatzen dituzten etxebizitzak ([2.4.3 fitxa](#)). Zerbitzu horiek zaintzaileak dituzte erabiltzaileak dauden orduetan. Etxebizitzek beharrezko laguntza eskaintzen dute gaixotasun mentala duten pertsonen autonomia pertsonala mantentzeko, haien sintomatologia murrizteko, ospitaleratze psikiatrikoak saihesteko eta haien gizarteratzea bultzatzeko. Horrez gain, otordu-zerbitzua, ikuztegi-zerbitzua, garbiketa-zerbitzua eta zaintza-zerbitzua. Laguntza duten etxebizitzak aldi baterako egonaldikoak, egonaldi luzekoak edo egonaldi iraunkorrekoak izan daitezke.

## Norentzat?

18 urte edo gehiagoko pertsonak, **gaixotasun mental kronikoa edo nahasmendu mental larria diagnostikatu zaienak**.

## Zenbat balio du zerbitzuak?

**Koordinaketaren menpe dagoen zerbitzua** da, hau da, onuradunak zerbitzuaren zati bat ordaintzen du, bere egoera ekonomikoaren eta baliabidea erabiltzeko modalitatearen arabera.

## Zer baldintza bete behar ditut eskatzeko?

**18 urte edo gehiago**. Salbuespenez, adingabeak.

Dagokion lurralde historikoko udalerriren batean **errolatuta egotea**.

**Gaixotasun mental kronikoaren edo nahasmendu mental larri** eta luzearen diagnostikoa.

## Non eska dezaket zerbitzua?

Zure auzo, udalerrri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan**.

## Informazio gehiago:

- [Neurrizko laguntza duten etxebizitzak Araban](#)
- [Neurrizko laguntza duten etxebizitzak Bizkaian](#)
- [Neurrizko laguntza duten etxebizitzak Gipuzkoan](#)

[Kontsultatu informazio osoa](#)